

Kontsumo arduratsuaren aldeko dekalogo

1. Ura

Ez galdu ur tanta bat ere: minutuko 10 tanta alferrik galdutako 2.000 litro izan litezke urtean. Konpondu iturriak, iturriak itxita mantendu, bainatu ordez dutxatu, komuna neurri-neurrian erabili, eta arropak edo ontziak garbitzerakoan garbigailuak goraino bete eta beharrezkoa den xaboa bakarrik erabili.

2. Jakiak

Bertako jakiak erosi, eta ahal dela, sasoi-sasoikoak. Horrela, garraioan dirua eta energia aurreztu eta kalitatezko jakiak kontsumitzeko aukera izango dugu. Zilarrezko paperaren erabilera saihestu, eta bildukinak berrerabili bota aurretik.

3. Erosketak

Erosketak egitera joan aurretik pentsatu zer erosi: produktuak erosi, ez bildukinak, erosi baino lehen irakurri, eta erabilera bakarra duten produktuak erostea saihestu. Erosketak egitean elkertasunez jokatu, produktuen jatorrian eta bizi-zikloan pentsatu.

4. Hondakinak

Aurreztu, berrerabili eta birziklatu. Hondakinik onena sortzen ez dena da! Ezinbestekoak, ahal dela berrerabili, eta bestela birziklatu (hondakinak bota aurretik bereizi).

5. Mugikortasuna

Erabili zure motorra: oinez edo bizikletaz ibili!. Bestela garraio publikoa erabili, eta zure autoa erabili beste aukerarik ez baduzu, ez ibili bakarrik. Kotxea konpartitu eta sasoi onean mantendu, ingurua kutsatu ez dezan. Gutxiago kontsumitzen duten autoak erosi, eta lasai gidatu.

6. Etxea

Etxea ondo isolatu (kristal bikoitzekin, gortinekin, pertsianekin, etab.), eta behar denean bakarrik aireztatu: 10 minutu nahikoak dira etxeko aire guztia berrizatzeko. Etxeko termostatoa ez eduki 20°C baino beroago, eta ura berotzeko termoak 60°C ez gainditzea bermatu. Aire egokitua ez da beharrezkoa, eta ezta gomendagarria ere. Egur tropikalarekin egindako altzaririk ez erosi.

7. Energia

Etxetresna elektrikoak behar direnean bakarrik erabili, eta bestela itzali (saihestu "stand by" egoera). Sukaldean ez gastatu alferrik energiari, eta kontsumo baxuko bonbilak erabili. Pilen kontsumoa aurreztu, ahal dela argi indarra erabili: pilen energia 450 aldiz garestiagoa da, eta pilak deuseztatzea oso prozesu kutsakorra da. Ahal duzula energia berriztagarriak erabili.

8. Aisialdia

Kontsumorik eskatzen ez duen aisialdiaz gozatu: baliatu zure inguruko eremu irekietaz.

9. Oporrak

Gogoratu hegazkinak direla atmosfera gehien kutsatzen duten ibilgailuak. Giza eskubideak eta ingurumena errespetatzen duten bidaiak aukeratu, eta zoazen lekuan, errespetatu bertako bizimodua, kontsumitu hangoen mailan eta ekidin zabor pilaketa.

10. Bioaniztasuna

Bertako landareak landatu, ura eta elikagaiak aurreztuko dituzu, eta espezie arrotzik ez askatu naturan (ez landare eta ezta animaliarik ere). Errespetatu babestutako flora eta fauna edonon.